




## ASTEME, KATUKO ETA OILARQUEEN-EN BIDAIA





Behin batean etxe batean asto eme bat zegoen. Zaharra zenez etxekoek erabaki zuten ez zuela ezertarako balio eta hiltzea erabaki zuten, traba besterik ez baitzuen egiten.

Hori jakin zuenean astemeak ihes egitea erabaki zuen. Eta gauez baserritik urrundu zen, norabide jakin gabe, baina bizitza salbatuz. Joan eta joan eta joan, azkenean katu batekin topo egin zuen.

*-Egunon Katuko, zer egiten dun?- galdetu zion Astemek.*

*-Egunon Astoko -erantzun zion katuak- Ai, bizi nintzen etxean ez ninduten nahi. Esaten zuten saguak harrapatzen ez dituen katuak ez duela ezertarako balio eta bota egin ninduten. Baina niri saguak harrapatzea baino, irakurtzea gustatzen zait. Ez dakizu zenbat gauza interesagarri dauden liburuetan!*

*-Ba goazen elkarrekin bidean aurrera- esan zuen Astemek- Aurkituko dugu gustuko dugun lekuren bat.*

Eta biak aurrera egin zuten. Astemek katuari bere bizitza gogorra eta esker txarrekoa kontatu zion, beti lanik gogorrenak egiten eta ordainez jipoiak besterik ez. Baina, baita ere, bere bizitza luzean ikasitakoak, eta istorio ederrak. Katukok, berriz, liburuetan irakurritakoak kontatzen zizkion, eta batzuetan berak asmatzen zituen kontuak. Eta horrela bidea arinago egiten zitzaien.

Eguerdia zen, eta zelai batean zegoen harresi txiki eta luzean oilar bat ikusi zuten. Harrituak gelditu ziren nola eguerdia izanik ez zuen kukurrukua kantatzen. Horren ordezkantatu bitxi xamarrekin ari zen. Gerturatu eta ikusi zuten oilar benetan ederra zela. Bere lumak kolore guztietakoak ziren eta eguzkiaren eraginez dirdiratsu agertzen ziren. Kantari eta dantzan ari zen harrien gainean.

*-Egunon Oilarko -esan zion Astemek- Zertan ari haiz?*

*-Egunon lagunak -erantzun zuen oilarrak- Dei nazazue Oilarqueen. Kabaret kantaria naiz, oso gustukoa dut eta nire kantak entsaiatzen nabil. Baina etxekoek ez dute batere maite kabareta, eta esan zuten kukurrukua egiten ez duen oilarrak ez duela ezertarako balio, kazuelarako ez bada, eta ihes egin nuen.*

*-Ba gurekin etor hadi, Oilarqueen. Munduan barrena goaz ea gustuko lekurik topatzen dugun- esan zion Astemek.*

Eta hirurok elkarrekin abiatu ziren bidez bide, joan eta joan. Astokok bere kontuak kontatzen zizkien; Katukok liburuetan irakurtzen zituen gauza harrigarriak, eta Oilarqueenek bere kantu eta dantzekin alaitzen zituen. Gosea zutenean, Katukok bere morraletik xardinxar bat atera eta otordua egiten zuten. Xardinxarrak euren beste bidelagunak bihurtu ziren.

Behin zelai batean azeria topatu zuten. Saltoka eta dantzan ari zen. Berarengana gerturatu ziren harrituak. Oilarqueenek beldur pixka bat zeukan, izan ere azeriek oilarrak dituzte gogoko, bazkaltzeko! Baina bere lagunak ondoan ezerean beldurrik ez zuela behar pentsatu zuen.


*-Egunon Azeriko -esan zion Astemek- Zertan ari haiz?*

*-Egunon lagunak -erantzun zien azeriak- Dantzan ari naiz, nik asmatutako dantza. Baina bakarrik dantzatzea aspergarria da. Ikasi nahi al duzue?*

Bitartean oilarra astemearen atzean ezkutatuta zegoen. Konturatu zenean, azeriak esan zion:

*-Lasai laguna, aspaldian utzi nion oilarrak jateari. Badakizu, kolesterola eta halakoak. Orain barazkiak baino ez ditut jaten. Baina, ikasi nahi al duzue nire dantza?*





Hiruek baiezkoa eman zioten. Eta zelai hartan hasi ziren dantzan. Primeran pasa zuten denek. Eta amaitzerakoan, xardinxarra atera eta denek jan zuten, azeria izan ezik, berak intxaurrak nahiago baitzituen. Bakoitzaren istorioa ezagutu zituen azeriak. Azkenean astemeak esan zion ea beraiekin joan nahi ote zuen. Baina azeriak ezetz esan zien.

*-Eskerrik asko, baina ni ondo bizi naiz nire basoan. Nire lagunak hemen ditut. Espero dut zuek ere zuen lekua aurkitzea. Eta triste zaudetenean nire dantza dantzatu; bidea alaiago egingo zaizue. Dantzatzen duenak tristezi guztiak airean botatzen ditu.*

*-Eta abesten duenak!-* erantzun zuen Oilarqueenek.

*-Eta irakurtzen duenak!-* esan zuen Katukok.


*-Eta oroimena zaintzen duenak!-* esan zuen Astemek.

Guztiak elkar agurtu eta hiru lagunek bidea jarraitu zuten.

Egun batean herri batera heldu ziren. Herri triste bat iruditu zitzaien. Jendea irribarrerik gabe zebilen kalean. Denak presaka eta elkarrekin ia hitz egin gabe. Herritar bati zerbait galdetu nahi izan zioten, baina presaka, begiratu egin gabe, aurrera jarraitu zuen esanez: "Ez dut astirik, ez dut astirik. Urrezkoa dadenbora!" Azkenean plaza batera heldu ziren. Han gazte talde bat topatu zuten. Triste sumatu zituzten. Beraingana hurbildu ziren eta galdetu zieten eazergatik zeuden hain goibel.

Gazteek esan zieten aspertuak zeudela, ez zutela gauza handirik egiteko. Orduan astemeak esan zien:

*-Nola da posible? Gazteak izan eta horrela? Pizgarriren bat bilatu beharko duzue.*



*-Bai, erraza da esatea -erantzun zion batek- baina herri honetan ez dago gauza handirik egiteko.*

*-Orduan zuek egin!- esan zien Katukok- Ez itxoin auskalo zeinek egitekoez dakit zer. Zuek ez baduzue egiten ez du inork egingo.*

*-Bai, hala da- esan zuen beste gazte batek- Baina zer?*

*-Kanta eta dantza!- esan zien Oilarqueenek- Nahi baduzue dantza alaigarria erakutsiko dizuegu. Salto eta brinko egiteko aproposa, gorputzak eta arimak alaitzeko ederra. Nahi al duzue ikasi?*

*-Eta irakurtzen ere primeran pasatzen da denbora- esan zuen Katukok.*


*-Eta kontu zaharrak entzuten eta kontatzen- esan zuen Astemek.*

*-Primeran! -esan zuen neska ausart batek- Hemen herdoiltzen ari gara egunetik egunera.*

Orduan hiru lagunek azeriaren dantza erakutsi zieten. Plazan sekulako giroa piztu zen. Amaitzerakoan, katuak xardinxar batzuk atera zituen eta guztiek merienda ederra egin zuten. Gero oilarrak bere kabaret espektakulu ederra eskaini zien.

Barre algarak egin zituzten oilarraren ateraldiekin eta amaieran, lehen goibel zeudenak irribarre argitsuak zituzten aurpegian. Katukok liburu zoragarriak erakutsi zizkien. Azkenean, Astemeren kontuekin liluratuak geratu ziren.

*-Orain gure bidea jarraitu behar dugu- esan zien Astemek- Primeran pasa dugu zuekin, baina gure lekuaren bila gabiltza.*



*-Gera zaitezte gurekin!-* eskatu zieten gazteek.

*-Milesker zuen eskaintzagatik-* esan zuen Katukok- *Baina beharbada beste leku batzuetan gure beharra izango dute.*

*-Pena da zuek alde egitea-* esan zien neska adoretzuak- *Espero dut zuen lekua aurkitzea. Nahi duzuenean hementxe egongo gara. Eskerrik asko zuen alaitasuna eta eskuzabaltasunagatik.*

*-Lasai, nahi baduzue tarteka etorriko gara eta elkarrekin dantzan, kantuan eta kontu kontari ariko gara-* esan zien Astemek.

*-Beharbada, liburu batean bildu beharko ditut gure ibilerak-* esan zuen Katukok.

*-Eta agurtzeko azken kanta!-* egin zuen kukurruku Oilarqueenek.

Alaitsu amaitu zuten guztiek. Hiru lagunak herritik joan zirenean bere bideari jarraituz, gazteek irribarre handi batekin agurtu zituzten; baina pixka bat triste ere, lagun berriak joan zirelako. Itxaropena zuten, hala ere, berriro ikusiko zituztela. Azeriaren dantza ederra eta alaitsua erakutsi zieten eta ez zuten erraz ahaztuko.

Bitartean Astemek, Katukok eta Oilarqueenek beren bidean aurrera jarraitu zuten, joan eta joan, euren lekuaren bila. Aurkituko ote zuten? Hori ez dakigu.

Baina urtero herri hartatik pasatzen dira gazte haiekin eta elkartzen diren gero eta herritar gehiagorekin azeriaren dantzarekin alaitzeko eta momentu goxoa pasatzeko lagunartean.

Eta beraiekin xardinxarra eramaten dute, afari-merienda egiteko.

Urrutian Oilarqueenek kanta entzuten ziren.